

1963-ko Maiatzaren 18-an, arratsaldeko iru t'erdietan, Euskaltzaindiak batzar agirikoa egin du Beloke-ko komentuan, Aita Xabier Diharceren sarrera ospatzeko. Batzar agirikoa bukatu ondoren, beste bilkura bat egin da Euskaltzaindikoaren artean bakarrik.

Etorri diran euskaltzaiñak, auek izan dira: Lojendio, Arrue, Erkiaga, Akesolo, Villasante, Krutwig, René Lafon, Lafitte, Dassance, Eppherre, Haritschelhar eta Aita Diharce (Iratzeder).

Urgazleak, berriz: Aita Berriatua, Irigoien, Satrustegi, Larzabal, Aita Lertxundi O. S. B., Alvarez Emparanza (Txillardegi), eta Artola (Bordari).

Batzar agirikoetan oi dan bezela, euskaltzainburu jaunak adierazi du zertarako dan gaurko batzarra. Gero bi euskaltzain (Dassance eta Arrue) joan dira Aita Iratzederren billa, eta onek egin du bere sarrera-itzaldia, "Beloke-ko eskual bidea" gaitzat arturik. Gero Laffitte jaunak erantzun dio, euskaltzain berriaren bizitza eta lanak kontatuaz. Azkenean euskaltzainburuak Aita Iratzeder euskaltzain dala iragarri du eta artako diploma eman dio. Bide batez Aita Lertxundiren urgazle-izendapena ere iragarri du.

Gero Euskaltzaindikoaren arteko batzarra egin da.

Haritschelhar jaunak jakinarazten du bere sarrera Baigorri, Uztaillaren 28-an ospatuko dala, René Lafon jaunak erantzuna egiñik.

Euskaltzainburuak, berriz, adierazten du urrengo batzarrara Gernikan, Garagarillaren azken ostiralean Severo Altube jaunaren omenez egingo dala.

Aita Villasantek esaten du Urtarrilleko agiria ezeztatu egin zala, eta beraz orduan izendatu ziran euskaltzaiñak, desizendaturik daudela. Satrustegi eta Irigoien batzarretik kanpora irteten dira (Larzabal jauna ordurako alde egiña zan). Apirillaren 5-ean egindako batzarrean erabaki zan Irigoien izendapena urrengo batzarre-rako uztea, Bilbon gertatuaren zurtasuna egin arte. Garbitasun ori egin du euskaltzainburu jaunak, Apirillaren 26-ko batzar-agirian ikusten danez. Gaiñera araudiak galdetzen dituan baldintzak bete dira eta legezko eskabidea egin da Irigoien jaunaren alde, lau euskaltzaiñak firmatua. Eskabide au irakurri da batzarrean. Aita Villasantek uste du Urtarrillean egindako izendapenei berriz ere legezko balioa eman behar zaiela. Krutwig jaunak dio bere ustez euskaltzaiñak ezdirala geiegi ugariu bear. Banabana danen iritzia eskatu da eta azkenean ao batez irurak, au da, Irigoien, Satrustegi eta Larzabal, euskaltzain izendatu izan dira, eta euskaltzain oso gaiñera.

Gero Lafon eta Haritschelhar jaunak eskabidea egiten dute Jacques Allières jaunaren alde, urgazle izendatua izan dedin. Jaun au *Carte linguistique basque* eta beste

lan baliotsuen egille da, eta Atlas Lingüístico bat iñoiz egingo bada, ezin-utzia degu. Ontzat eman da eskabidea. Haritschelhar jaunak beste eskabide bat egiten du Pierre Duny Pétré jaun garaztarraren alde. Eta orobat eskabideak egin dira Jose Artetxe eta Juan Maria Lekuonaren alde. Denak urgazle izendatuak izan dira.

Eta beste gabe, oi dan otoitzarekin, bukatu da batzarra.